

Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO PROGRAMAZIO ZABALA

URKABUSTAIZKO UDALAK, AURREKO EDIZIOETAN ANTOLATU DUEN BEZALA, EGITARAU ZABALA PRESTATU DU AZAROAREN 25EKO EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI LOTUTA, GAITZ HORI EZABATZEKO SENTSIBILIZAZIOARI BEGIRA. AURREIKUSITAKO EKITALDIAK ASTE HONETATIK AURRERA EGINGO DIRA.



Udalak beste buelta bat eman nahi izan dio gaiaren planteamenduari, jende gehiagorengana eta beste modu batera iristeko; adibidez umorearen bitartez. Beraz, **azaroaren 11n, ostirala, 18: 30etan**, umorezko lau bakarriketa feminista egingo dira. **Belen**

Nevadok, aktore, gidoilari eta zuzendariak, **'Pinturas de guerra'** kamikaze ikuskizuna eskainiko du; **Silvia Albert Sopale** sortzaile eta aktibistak **'Hablemos en serix'** antzeztuko du; eta **Elsa Ruiz** komiko, youtuber eta ilustratzaileak **'Machismo a tope de Cobertura'** lanari ahotza jarriko dio. **Saioak kultur etxean egingo dira.**

Sare sozialek gure egunerokoan duten indarra eta aukera handiak -onak eta txarrak- ikusita, Udaleko Berdintasun Sailak eremu horri heldzea erabaki du. Horretarako, **azaroaren 17an, osteguna, Deustuko Unibertsitateko lantaldeko Esti Linares adi-tuak indarkeria matxistari buruzko hitzaldia emango du kultur etxean, 18: 30ean.** Bereziki gazteei, ikastetxeetako langileei eta gurasoei zuzenduta dago.

Azkenik, **azaroaren 20an, igandea, Zineforum feministaren programaren barruan, 'Agua con sal' filma proiektatuko da kultura etxean, 18:00etan.** 'Agua con sal' Puerto Rico eta Espainiako Estatuko ekoizpena da eta Zuzendari Berrien sailean aurkeztu zen Donostiako Zinemaldian. Kubako etorkin baten eta arazo ekonomikoak dituen neska gazte baten bizipenei buruzkoa da. Bizirik dirauten bi emakume herrialde garatu eta errukigabe batean beren lekua aurkitzeko borrokan ari dira.

Film honek urrian oso harrera ona izan zuen Zineforum zikloa biribilduko du. Orduko hartan 'Potiche, mujeres al poder' filma proiektatu zen. Wayra elkarteak gidatzen du zineforuma, eta haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen da proiektioetan.

UDAL TASAK

UDAL TASAK IZOZTUTA, HAUR ETA ZABORREN KASUAN IZAN EZIK

URKABUSTAIZKO UDALAK UDAL ZERGA ETA TASAK IZOZTEA ONARTU DU, BIZITZA GARESTITU DELAKO ETA FAMILIA ASKOK ZAILTASUNAK DITUZTELAKO HILABETE AMAIERARA IRISTEKO.

Izozte honek bi salbuespen ditu: bata, UME-rena (Urkabustaizko Musika Eskola); eta bestea, zaborren tasa.

Musika Eskolako tasak eguneratzeko arrazoia, gaur egun arte bizilekuaren araberaz zituen bi tarifa desberdin kentzea da.

Egitate hori ez zetorren bat legediarekin, eta tasak bateratu behar izan dira. Horrela, zerbitzuaren erabilzaileek beren gain hartzen dituzten gastuen zatia antzekoa izaten saiatu dira.

Indarrean sartzen den matrikula: 75€

(gaur egun 65€ da udalerrian erroldatutako pertsonen kasuan, eta 90€ erroldatu gabeko pertsonen kasuan).

Musika Hastapen, Musika Eskola eta Abesbatza ikastaroaren kasuan, zenbatekoa 12€ izango da (gaur egun 10€ da erroldatutako pertsonentzat, eta 15€ erroldatu gabeentzat).

Instrumentuak eta kantu bakarlaria atalean, kostua 20€ izango da (orain arte 17,50€ izan da erroldatutako pertsonentzat eta 23,50 erroldatu gabeentzat).

Azkenik, Instrumentalak 7€ kostua izango du (gaur egun 5€ da).

Bestalde, zaborren tasak %6ko igoera izango du, hala onartu baitu Gorbeia Ingu-ruetako Zaborren Partzuergoak.

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA AZOKA ARRAKASTATSUA

Duela gutxi Urkabustaizko Nekazaritza eta Abeltzaintzako XII. Azoka ospatu da arrakasta handiz. Eta eguraldi onak lagunduta, herritar eta bisitari ugari parte hartu zuten.



Ez zen gutxiagorako: Udalak antolatutako azokak 135 abelburu bildu zituen, eta udalerriko ekoizleentzat eta artisautzarentzat 48 postu jarri ziren. Ekoizleak pozik daude egindako salmentekin. Era berean, animaliak azoka-esparrura sartzeak ikusmin handia sortu zuen. Bestalde, abeltzainek kezka agertu nahi izan zuten otsoek behin eta berriz egindako erasoengatik; horretarako, hainbat argazki jarri zituzten azoka esparruan.

Zigoitiako Oketa klubaren herri kirolen

ikuskitzuna ere interes handia piztu zuen ikusleen artean; lasto-fardelak eta ingudeak altxatzen eta aizkora mozteko probetan aritu ziren.

Eta ez ziren gutxi izan Ariana Valoren eskutik kaskoak jarri eta konpontzeko tailerrekin harrituta geratu zirenak.

Txikiene ere beraiei zuzendutako jarduera espezifikoa izan zituzten. Izan ere, artilezko kardatze tailerretan eta tamaina handiko zurezko jostailuekin ume eta gaztetxo asko ibili ziren jolasean.



ELKARTASUNA ABELTZAINITZAREKIN ETA LEHEN SEKTOREAREKIN OTSOEN ERASOEN AURREAN

Udalerrian, Gibijo mendilerroan eta inguruko Uzkiano, Oiardo eta Goiuri-Ondona herrietan otsoen etengabeko erasoak gertatzen ari direnez, Urkabustaizko Udalak bere ezinegona eta atsekabea azaldu ditu, eraso horiek abeltzaintzan lan egiten duten pertsoneri eta lehen sektorean aritzen direnei kalte handiak eragiten dizkietelako.

Horregatik, abeltzaintza sektorearekin bat etorritik, eskatzen dugu neurri egokiak har daitezela Urkabustaizko mendietan lan egiten jarraitu ahal izateko; izan ere, funtsezko balioa dira lurraldearen orekarako, udalerriko jarduera ekonomikorako, ekosistemaren kontserbaziorako eta, horrela, mendiko artzaintza eremu horien kontserbazio arazoak saihesteko.



UDALBATZA

BEGOÑA GANZABAL ZURBITUK UDALBATZA UTZI DU

Begoña Ganzabal Zurbitu EAJ-PNVko zinegotziak Udaleko zinegotzi aktari uko egin dio urriko osoko bilkuran, udalbatzan 16 urte eman ondoren, eta horietako lau Urkabustaizko alkate bezala.

Udalak urte hauetan guztietan udalerriri eskaini dion dedikazioa eskertzen du eta zorte ona opa dio eta bere eginkizun berrietan.

Hemengo eta Hango Emakumeak
RAQUEL HERNANDEZ
MENDIGUREN
(IZARRA, 1947)



Espainiako Estatuko lehen futbol epailea, Izarran jaioa. 1969ko martxoan estreinatu zen Mendizorrotzan, 22 urterekin, Gasteizko Irrati eta Telebista Elkartearen arteko lagunarteko batean. Arbitro gisa debuta egin aurretik Izarrako Futbol Klubeko bazkidea zen, futbolzale amorratua baitzen.

Primera árbitra de fútbol del Estado Español, nacida en Izarra. Se estrenó en marzo de 1969 en un amistoso en Mendizorroza entre la Agrupación de Radio y Televisión de Vitoria con 22 años. Antes de su debut como árbitra ya era socia del Club de Fútbol de Izarra ya que era una gran aficionada al fútbol.